

**DONOSTIAKO A.U.**

**"AÑ.01 ATOTXA ERREKA" (AÑORGA)**

**a.500.59 ETA a.500.59 bis**

**PARTZELEN BERMUGAKETARAKO**

**XEHETASUN AZTERKETA**



**SUSTATZAILEA: ROSA M<sup>a</sup> ARTEAGA MENDIZABAL**

**2021-ko Otsaila**

## **AURREKARIAK**

2.020-ko maiatzaren 20-ko datarekin eta 20209990000959 zenbakiarekin, Donostiako Udaletxean a.500.59 eta a.500.59bis partzelen bermugatzea helburu zuen Xehetasun Azterketa aurkeztu zen, "AÑ-01 AtotxaErreka" (Añorga) hirigintza eremuan kokatuak. (ED-2020-017 expedientea)

Dokumentuaren aurkezpenaren ondoren eta 2.020-ko uztailaren 29-ko datan Udal Arkitektuaren aldetik orubearen topografia eguneratzea jasotzen da, zenbait moldaketekin.



**Lehenagoko Udal topografia**



### **Udal topografia eguneratua**

Orain aurkezten den honako dokumentuak topografiaren eguneratzeak sortutako doikuntzak kontutan hartzen ditu eta baita udal arkitektuak egindako gogoetak ere.

Xehetasun Azterketa honen helburua berdina izaten jarraitzen du, hau da, a.500.59 eta a.500.59bis partzelen bermugatzea, eta eguneratze honek ez du hortan oztoporik suposatzen.

Topografiaren eguneratzeak suposatutako doikuntzen artean, plataforma eraikigarrietan okupazio gutxiago planteatzen da orubeari hobeto egokitzeko, horrela Udal Teknikariaren gomendioak jarraituta.

Era berean, Abuztuaren 10-eko datarekin Hirigintza eta Zuzenbide Teknikari Gorenaren Aldeko Txostena jasotzen da. (Txosten biak eranstean dira)



**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**

► Hirigintza Sostengagarria  
Urbanismo Sostenible

San Martín, 48 | Tel. 010 - 943483838 | www.donostia.eus  
20005 Donostia / San Sebastián

JMG/LV – 074/2020



**IZASKUN LARZABAL ARZALLUS**  
AVDA TOLOSA 5 – 3 – 1D  
20018 DONOSTIA

Adjunto se remite, para su conocimiento, informe emitido con fecha 4 de agosto de 2020 por la Arquitecta de Ordenación y Edificación en relación con Estudio de Detalle de las parcelas a.500.59 y a.500.59bis en el AIU AÑ.01 Atotxa Erreka.

Donostia/San Sebastián, 5 de agosto de 2020

**EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO  
DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN**



Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

10740n XVII

**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**Hirigintza Sostengagarria  
Urbanismo SostenibleIjentea, 1 | Tel. 010 - 943483338 | www.donostia.eus  
20003 Donostia / San Sebastián**INFORME URBANÍSTICO ESTUDIO DE DETALLE**

<b>EXPEDIENTE:</b>	ED-2020-017
<b>REGISTRO:</b>	20/05/2020
<b>OBJETO:</b>	REDELIMITACIÓN DE LAS PARCELAS
<b>SITUACIÓN:</b>	Parcelas a.500.59 y a.500.59 BIS (A.I.U. AÑ.01 – ATOTXA-ERREKA)
<b>SOLICITANTE:</b>	Rosa María Arteaga Mendizabal
<b>REPRESENTANTE:</b>	Maria Izaskun Larzabal Arzallus
<b>REDACTOR del PROYECTO:</b>	Maria Izaskun Larzabal Arzallus, arquitecta

**I. ANTECEDENTES**

El 20 de mayo de 2020 se presenta un Estudio de Detalle con fecha mayo de 2020 que *"tiene por objeto la redelimitación de las parcelas a.500.59 y a.500.59bis del ámbito urbanístico "AÑ.01 AtotxaErreka" (Añorga), para posibilitar así un terreno con una topografía más adecuada para la construcción de una vivienda en la parcela a.500.59bis."*

**II. ANÁLISIS PRELIMINAR**

En tanto que el objeto del Estudio de Detalle se refiere a la topografía, en una primera observación de la topografía presentada y de las fotografías disponibles, por parte de quien suscribe, se considera que la cartografía municipal no representa la realidad del terreno, por lo que, en fecha 9 de junio solicita a los servicios municipales correspondientes que se subsane la cartografía municipal.

Una vez obtenido el cartográfico corregido, en fecha 29 de julio de 2020, se envía por correo electrónico al equipo redactor para que se adapte el estudio.

**III. CONCLUSIÓN**

Se informa que, para poder iniciar el análisis correspondiente, deberá estudiarse la propuesta en base a la cartografía corregida. Asimismo, se aportará la documentación en formato \*.dwg.

Lo que se informa a los efectos oportunos.

En Donostia / San Sebastián, a 04 de agosto de 2020

Fdo.: Ixiar Ugalde Gabellanes  
Arquitecta de Ordenación y Edificación

2020.08.04 10:59:52 +0200'



**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**

► Hirigintza Gostogaia  
Urbanismo Sostentible

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 94348388 | www.dnostia.eus  
20003 Donostia / San Sebastián

## ESTUDIO DE DETALLE PARA LA REDELIMITACIÓN DE LAS PARCELAS A.500.59 Y A.500.59.BIS DEL ÁMBITO URBANÍSTICO "AÑ.01 ATOTXA ERREKA" ( AÑORGA)

ED 0170-2020

Aprobación inicial

INFORME

Se me ha remitido para informe el documento de Estudio de Detalle referente al ámbito urbanístico " AÑ.01 ATOTXA ERREKA" ( AÑORGA) parcelas denominadas " a.500.59" y " a.500.59.bis " redactado por el equipo redactor de " Izaskun Larzabal Arquitecto" en mayo 2020 .

### I.- Objeto y ámbito de aplicación del Estudio de Detalle-

El objeto del Estudio de Detalle es la redelimitación de las parcelas a.500.59 de 3.556,17 m<sup>2</sup> de superficie y 344 m<sup>2</sup> (t) de aprovechamiento edificatorio , y a.500.59.bis de 1.719,86 m<sup>2</sup> y 120 m<sup>2</sup> (t), respectivamente, y señalar, rectificar y complementar las alineaciones y rasantes de las parcelas.

### II.- Propuesta del ED

Parcela "a.500. 59 " de 3.877,66 m<sup>2</sup> y parcela "a.500.59bis" de 1398,37 . Se mantiene la edificabilidad.

### III.- Régimen urbanístico vigente .-

1. Plan General de Ordenación Urbana aprobado definitivamente el 25 de junio de 2010.NNUU particulares del ámbito.
2. Plan Parcial del A.I.U. " AÑ.01 ATOTXA ERREKA" APROBADO DEFINITIVAMENTE EL 30 DE NOVIEMBRE DE 2004. Proyectos de reparcelación y Urbanización aprobados definitivamente con fechas 1-12-2006 y 2-3-2007 , respectivamente .
3. La Modificación del proyecto de reparcelación del A.I.U. "AÑ.01 Atotxa Erreka " aprobado por la JGL de 5-2-2010
4. Proyecto de Urbanización del A.I.U "AÑ.01 ATOTXA ERREKA" aprobado por la JGL de 2-3-2007.

El régimen urbanístico aplicable a las parcelas es el establecido en el Plan Parcial de Atotxa Erreka aprobado definitivamente mediante resolución de 30 de noviembre de 2004 y Plan General de 2010 .

### Artículo 10. Formulación de "Estudios de Detalle" para la complementación o reajuste de las determinaciones del Plan Parcial.

Podrán formularse este tipo de expedientes con el objeto de modificar la configuración parcelaria de los diferentes espacios ordenados, en su caso de las edificaciones ordenadas, o la ordenación de la urbanización prevista en el presente Plan Parcial, dentro de los límites y con las condiciones establecidas en la vigente legislación urbanística y en el presente artículo.

Los Estudios de Detalle, al definir o reajustar la configuración física de las edificaciones, parcelas edificables y la urbanización, podrán modificar o complementar la Calificación Permenorizada establecida por el presente proyecto en los siguientes términos:

- En principio, y como regla general, no se podrá afectar a la superficie de los "Espacios libres urbanos f.110" sujetos al régimen del art. 50 de la Ley del Suelo de 1976, si bien se podrá incorporar a los mismos nuevas superficies de terreno, o definir nuevos espacios de este tipo.



Hirigintza Sostengagarria  
Urbanismo Sostenible

- Para las parcelas "a" o "g", los Estudios de Detalle cuya formulación se posibilita y establece en las presentes Ordenanzas Reguladoras, abarcarán ámbitos correspondientes a una o varias "Zonas de Uso Pormenorizado" completas, y a su sistema de accesos viarios y acometidas de infraestructuras.
- El los términos regulados en el artículo "1.3.4.- Vinculación normativa y tolerancias admitidas en las determinaciones de Calificación Pormenorizada" apartado "3.-

El Plan General califica el ámbito urbanístico como "a.40. Residencial de Bajo Desarrollo", consolidando la edificabilidad asignada por el Plan Parcial.

#### Análisis y valoración .-

Conforme a lo dispuesto en el artículo 73 de la Ley de Suelo, el objeto de los Estudio de Detalle es completar o adaptar las determinaciones de la ordenación pormenorizada.

El Plan Parcial prevé la redacción de estudios de detalle en los supuestos enumerados en el artículo 10 y 17 del PP anteriormente citado, al objeto de modificar la configuración parcelaria y definir o reajustar la configuración física de las edificaciones en los términos señalados en dicho artículo, siendo aspectos a analizar por los servicios de arquitectura a cuyo informe me remito y sin que, exista "a priori" cuestión jurídica a analizar.

#### Conclusión.-

En consecuencia, y por lo que se refiere a aspectos de mi competencia, el documento del Estudio de Detalle mayo 2020 para la redelimitación de las parcelas a.500.59 y a.500.59.bis del A.U. "AÑ.01 ATOTXA ERREKA" (AÑORGA) se informa favorablemente para su aprobación inicial.

En Donostia - San Sebastián, 10 de Agosto de 2020

La Técnico Superior Jurídico Urbanista

Fdo. Yolanda Bernardo

## **SARRERA**

Dokumentu honetan jasotako Xehetasun Azterketaren objektua a.500.59 eta a.500.59bis partzelen bermugatzea da, "AÑ-01 AtotxaErreka"-ko Hirigintza Ekintza Eremuko Birparzelatze Proiektuaren emaitza direnak.

Atotxa Errekako Plan Partzialak, etxebizitza partzelei dagokien bere 21. Artikuluko 2.1 kapituluan, "a" partzela eraikigarriak moldatzea badagoela ezartzen du, Xehetasun Azterketa unitario baten formulatzearen bidez, eragina jasan duten partzela eraikigarrien multzoarentzako. Horrela, dokumentu hau idatzia izan da, **eremu honi dagozkion bi partzela hauek bermugatzeko**, eta ondorioz, **lortutako partzelen lerrokadura eta rasanteak adierazi, zuzendu eta osatuz**.

Partzela biek ez dute lurzoruaren erabilera aldatzen, ezta hirigintza eraikigarritasuna handitu, eta ez dute ibilbiderik edota Xehatutako Antolamenduan adierazitako dotazio publikorik gutxitu edota ezabatzen.

Xehetasun Azterketa hau dagozkion bere plano eta memoriarekin idatzia izan da.

(46/2.020 Dekretu berritik aurrera, duela gutxi indarrean sartua, Xehetasun Azterketek ez dute ingurugiro ebaluazioa jasan behar).



## **MEMORIA ETA ERANSKINAK**

---

### I. AURREKARIA, OBJEKTUA ETA XEHETASUN AZTERKETAREN EDUKIA

- I.1. AURREKARIAK
- I.2. ENKARGUAREN SUSTATZAILEA
- I.3. XEHETASUN AZTERKETAREN IDAZLEA
- I.4. AZTERKETAREN OBJEKTU ETA EDUKIA

### II. PARTZELEN EGUNGO EGOERA

### III. EGUNGO ANTOLAMENDUAREN ZEHAZTAPENAK

- III.1. DONOSTIAKO HAPO-AK EZARRITAKO HIRIGINTZA ARAU BEREZIAK AÑ01 "ATOTXA ERREKA" EREMURAKO

### IV. XEHETASUN AZTERKETAREN FORMULATZEAREN EGOKITASUNA ETA AUKERAREN ARGUDIATZEA

### V. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA

### VI. EGUNGO ARAUDIAREN MOLDATZEA

- VI.1. PARTZELEN ERAIKIGARRITASUNA
- VI.2. PARTZELEN LERROKADURAK
- VI.3. PARTZELEN RASANTEAK
- VI.4. PARTZELETARAKO SARBIDEEN BALDINTZAK
- VI.5. PARTZELEN "ERAIKI GABEKO GAINAZALEKO" ESPAZIOAK
- ESPACIOS "NO EDIFICADOS SOBRE RASANTE" PARCELAS

### VII. GARATZE ETA KUDEATZE BALDINTZAK

### VIII. ERAGIN AKUSTIKOAREN AZTERKETA

**I ERANSKINA:** Antolamenduaren ezaugarrien koadroa

**II ERANSKINA:** Urbanizazio lan osagarriak

**III ERANSKINA:** Hiri ingurunean eraikigarritasunaren araudia betetzearen argudiatzea

**IV ERANSKINA:** CTE-ren SI-5 suteen aurkako segurtasuna atalaren baldintzen argudiatzea

## MEMORIA

### I. AURREKARIAK, OBJEKTUA ETA XEHETASUN AZTERKETAREN EDUKIA

#### I.1. Aurrekariak

Honako Xehetasun Azterketak "AÑ.01 AtotxaErreka" (Añorga) hirigintza eremuko a.500.59 eta a.500.59bis partzelen bermugatzea du helburu, era honetan topografia egokiagoa duen orube bat bermatzeko a.500.59bis partzelan etxebizitza bat eraiki ahal izateko. Atotxa Errekako Plan Partzialak, etxebizitza partzelei dagokien bere 21. Artikuluko 2.1 kapituluak, "a" partzela eraikigarriak moldatzea badagoela ezartzen du, Xehetasun Azterketa unitario baten formulatzearen bidez, eragina jasan duten partzela eraikigarrien multzoarentzako.

Eragindako a.500.59 eta a.500.59bis partzeletan proposatutako antolamenduak ez du lurzorua erabilera aldatzen, ezta hirigintza eraikigarritasuna handitu, eta ez du ibilbiderik edota Xehatutako Antolamenduan adierazitako dotazio publikorik gutxitu edota ezabatzen. **Hortaz, honako Xehetasun azterketa idazten da, partzela bi hauek bermugatzeko, eta ondorioz, lortutako partzelen lerrokadura eta rasanteak adierazi, zuzendu eta osatuz.**

#### I.2. Enkarguaren sustatzailea

Xehetasun Azterketa honen sustatzailea Rosa María Arteaga Mendizabal Andrea da, 15932500D NAN zenbakiduna, partzelen jabeen ordezkari bezala: Don Pedro Arteaga Mendizabal, 15138172D NAN duena, María Mercedes Arteaga Mendizabal, 15138097ª NAN duena, Margarita Arteaga Mendizabal Andrea, NIF15866913H NAN duena, María Lourdes Arteaga Mendizabal, 15941625 NAN duena, eta Rosa María Arteaga Mendizabal Andrea bera.

#### I.3. Xehetasun Azterketaren idazlea

Xehetasun Azterketa hau Izaskun Larzabal Arzallus Arkitektoak idatzi du (Euskal-Nafarroako Arkitekto Elkargoan, Gipuzkoako egoitzan, 254.347 zenbakiarekin elkargotua) Tolosa etorbidean, 5 zenbakian, 3. Solairuko 1/D bulegoan, Donostian helbide soziala duena.

## I.2. Xehetasun Azterketaren objektu eta edukia

Xehetasun azterketa honen helburua "AÑ.01 AtotxaErreka" (Añorga) hirigintza eremuko a.500.59 eta a.500.59bis partzelen bermugatzea da, eta hortaz, partzela hauen birpartzelatze proiektuan eta Plan Partzialena ezarritako bere lerrokadura eta rasanteen moldatze eta zuzentzea.

A.I.U "AÑ-01 ATOTXA ERREKA" Plan Partzialean, a.500.59 partzela bakarra zen:

Partzela	Azalera M2(p)	Eraikigarritasuna M2(t)	Etxebizitza Kop. Max.	Gutxieneko aparkalekuak partzelan	Konsolidatutako eraikigarritasuna M2(t)	Egungo etxebizitza kopurua
a.500.59	5.255,53	464	2	3	344	1

A.I.U. "añ.01 Atotxa Erreka" Birpartzelatze Proiektuaren Aldaketan, Tokiko Gobernu Batzordeak 2010-eko otsailaren 5ean onartutakoa, a.500.59 partzela bitan bananduta gelditu zen. Hiri lurzoruko bi aldameneko partzela, hirigintza zerbitzu guztiak dituztenak, bere erlazioa hurrengoa izanik:

PARTZELA	AZALERA	ERAIKIGARRITASUNA
a. 500.59	3.556,17m2	344 m2(t)
a. 500.59bis	1.719,86m2	120 m2(t)

Osotasunean, Xehetasun Azterketa hurrengo azaleraren gainean gauzatzen da:

**5.276,03 m2.**

Donostiako HAPO-a, 2.010-eko ekainean onartua, Plan Partzialaren indarra mantentzen du, zenbait salbuespenekin. Plan Partzialean antolatutako eraikigarritasuna mantenduz, partzeletan gauzatu daitezkeen etxebizitza kopurua handitu zen. HAPO-ak ezarritako irizpide orokorren emaitza diren etxebizitza kopurua bermatzen da, hain zuzen, hau da, 700m2(t)-ko azalerarekin 5 edo 6 etxebizitza eraiki ahal izango dira, tipologiaren arabera. Azkenik, azken aldaketa bat ere sartu zen gainazal azpiko eraikigarritasunari buruz, gainazalean bermatuta dagoenaren berdina izanik.

Birparzelatze proiektuan planteatzen zen moduan, a.500.59bis partzela, neurri handi batean egungo sarrera bialak okupatzen zuen, eraikuntza bere bukaeran planteatzera behartuz, bialeetik urrun, malda aldaketa handiko orube batean eta espazio gutxirekin. Partzela bakoitzean finkatutako 5m-ko erretiroa, hauen morfología eta partzela bietarako sartzeko biala, muga berriek ezarpen hobeagoa bermatzen dute a.500.59bis partzelan, bere hasierako egoeran "enkajatua" eta maila aldaketa eta hezetasun handiko orubean zegoena.

a.500.59 partzelaren eraikuntza kontsolidatuko da eta ez du eraginik jasango.

Bi partzeletarako sarrera berdina izaten jarraitu ahal izango du.

## **II. PARTZELEN GAUR EGUNGO EGOERA**

Xehetasun Azterketa honen bi partzelak itxura irregularra dute eta haien artean aldamenekoak dira. A.500.59 partzelako mugak hurrengoak dira: Iparraldetik a.500.59bis partzela berria, Hegoaldetik a.410.24 eta a.500.58 partzelak, Ekialdetik ibilbideei zuzendutako e.120 partzela eta Mendebaldetik a.910.23, a.500.52 y a.500.53 partzelak. Partzela honetan familia bakarreko etxebizitza bat dago eraikia, soto, behe solairu eta estalki azpiko solairuak dituena. a.500.59bis partzelaren mugak hurrengoak dira: Iparraldetik a.500.59 partzela berria, Hegoaldetik a.500.59 partzela berria, Ekialdetik ibilbideei zuzendutako e.120 partzela eta Mendebaldetik a.500.53 partzela. Partzela honetan ez da egun eraikinik existitzen. Partzela hauek, HAPO-ak ezarritako izendapenaren arabera, AU AÑ 01, "AtotxaErreka" azpieremuan daude kokatuak. Azpieremuko urbanizatze lanak guztiz gauzaturik daude 2.004 urtean onartutako Atotxa Errekako Plan Partzialaren arabera eta bere urbanizatze proiektuarekiko. Hortaz, HAPO-aren arabera, Hiri Lurzoru Kontsolidatu izaera dute. Partzelek hirigintza zerbitzu guztiak dituzte, hauek ibilbide publikoarekin banatzen dituzten itxitura gauzatzeko gelditzen delarik soilik.

## **III. PLANGINTZAREN ZEHAZTAPENAK**

### **III.1. Donostiako HAPO-ak ezarritako Hirigintza Arau Bereziak AÑ01 "ATOTXA ERREKA" eremurako**

Donostiako HAPO-ak 2.010/06/25-an onartutakoa, bere Hirigintza Arau Berezietan, honako hau jasotzen du, AU.AÑ 01 "AtotxaErreka" azpieremuarekiko, zeinen kopia hurrengo orrietan eranstean den Xehetasun Azterketa honetan.

**DONOSTIAKO HAPO: "2.2. HIRIGINTZA ESPARRUEN (AU) ETA NATURA ESPARRUEN (AN) HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK" DOKUMENTUA Osatutako Textua (Behin Betiko onarpena: 2.010/06/25) III. Liburua, Añorga**

**A.U. "AÑ.01 ATOTXA ERREKA" (Añorga)**

**I.-AZALERA ETA MUGAKETA**

Añorgako bide-lotunearen inguruan kokatutako mazelan dagoen lurraldea da. Mugak: Ipar-ekialdean, Donostiako errepide-saihesbidea eta N-I errepidea; Hego-mendebaldean, lurzoru urbanizaezina. 430.051 m<sup>2</sup> -ko azalera du.

Bertan dagoen bide-azpiegituraren bidez aspaldi landa-lurzoruan eraiki zituzten etxebizitza isolatuko eraikuntzetara hel daiteke. Landa-lurzoruko egoera hori berriz eratuko da esparruaren zati handienari eragiten dion indarreko garapen-plangintza berriaren bitartez.

**II.-ANTOLAMENDUKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK**

1995eko Plan Orokorrak esparru berri hau konfiguratu zuen bizitegi-garapen berria ezartzeko funtsezko helburuarekin. Bizitegi-garapen hori zenbaitetan ematen zen eraikuntza isolatuko tipologiatan oinarritua zegoen, egina zegoen eraikuntza finkatzeko irizpide orokorrek, Zatiko Plana garatzeko aproposa zen neurrian.

Beranduago, eta 2003ko azaroaren 18an behin betiko onartutako Plan Orokor horren Aldaketaren ondorioz, oinarrizko irizpide haiek mantentzen dira orokorrean, baina honako alderdi hauen bitartez zehaztu edo osatuta:

. Zuatzu esparrutik zonara sarbideak hobetu eta osatzeko lanak gauzatzeko behar diren lur-eremuekin esparruaren azalera handitzea.

. Garapen txikiko tipologia ezartzea, hasieran aurreikusitako isolatuarenaz gain. Era horretan, esparruko etxebizitza-kopurua 320 unitate arte haziko da, hau da, 7,80 etx./Hako intentsitatea erakusten du.

. "AÑ.033 Añorga Txiki (III)" eremua sortzea, bertako behealdean esparru nagusitik bereizitako lurrekin.

Aipatutako Plan Orokorraren zehaztapenak Proiektu honetan baliozkotzen dira, AÑ.033 Añorga Txiki (III) eremua sortzeari dagokiona eta esparru honetan ezar daitezkeen etxebizitzaren kopurua zehaztearekin lotutakoak salbuetsita.

Plan Orokor honetan mugatzen den "AÑ.01 Atotxa Erreka" esparruaren barruan daude 1995eko Plan Orokorrean mugatutako "AÑ.031" eta "AÑ.033" eremuak. Era horretan, bertan adierazitako Añorga Txikiko azpiesparruak ezabatuko dira.

1995eko Plan Orokor hori garatzeko sustatutako eta Plan Orokor honek baliozkotzen dituen hirigintza-espedituek (hurrenez hurren, 2004ko azaroaren 30eko, 2006ko abenduaren 1eko eta 2007ko martxoaren 2ko ebazpen bidez behin betiko onartutako Zatiko Plana, Lursailak berriz zatitzeko proiektua eta Urbanizazio-proiektua) Esparru honen zati bati eragiten diote ("AÑ.01.1 Atotxa Errekako zatiko plana" azpiesparrua izenekoa), gainerakoan gaur egungo

antolamenduko baldintza zehatzak mantenduta.

## **A.U. "AÑ.01" (Jarr.)**

Era berean, esparruan ezar daitekeen etxebizitza-kopuruari dagokionean, Plan Orokor berri honetan horren inguruan ezarritako irizpide orokorraren aplikazioaren emaitzakoa bete behar da.

Bestalde, Plan Orokor honen beste helburu zehatzetako bat da Añorga parean N-I errepidea bulebar bihurtzea, betiere Añorgako ubidea bideratzeko eta Euskotreneko trenbidea bikoizteko aurreikuspenekin behar bezalako koordinazio globaleko baldintzetan, eta eraginpean dagoen bidearen titularrak den Foru Aldundiak kasurako hartuko dituen zehaztapenak kontuan hartuta.

Horren inguruan zehatz eta behin betiko erabakiko dena kaltetu gabe, Plan honetan sartzen da esparru horretan bat egiten duten premia formal eta funtzionalei erantzuten dien proposamen zehatza.

Horien artean honako hauek azpimarra daitezke: aire zabaleko ubidearen ibilbide berria (soluzio hori gauzatu ezin den zati zehatzetan izan ezik), Euskotreneko linea zabaltzea, Cementos Rezolako instalazioetara, eta Añorga eta Amasorraingo hiriguneetara sarbide egokiak eraikitzea, ibilgailuen trafikoa lasaitzea eta oinezkoentzako espazioei neurri egokiak ematea, eta abar.

### **III.-EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA**

#### **1.-Kalifikazio globala**

1.1.-"A.40 / AÑ.01 – Garapen txikiko bizitegi" zona. (Azalera: 430.051 m<sup>2</sup>)

1.1.1.-"AÑ.01.1 Atotxa Erreka Zatiko Plana" azpiesparrua: (Azalera: 407.614 m<sup>2</sup>)

A.-Eraikuntzako baldintza orokorrak:

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

. Sestra gainean: ..... 0,1587 m<sup>2</sup> (s)/m<sup>2</sup>

. Sestrapean: Azpiesparru osoan baimendutako gehieneko hirigintzaeraikigarritasuna, bertan sestrapean baimendutako irabazizko izaerako eraikuntza guztiei lotzen zaie, orokorrean ezarritako irizpideekin eta, horri lotuta, Plan Orokor honetako "2.1. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) ezarritako irizpideekin bat etorrita.

**A.U. "AÑ.01" (Jarr.)**

b) Eraikuntzaren forma arautzeko parametroak.

\* Eraikuntzaren profila: -Sestra gainean ..... III -Sestrapean: Orokorrean, sestrapean lau (4) solairu eraikitze baimena eman da. Gainera, aipatutakoa baino solairu-kopuru handiagoa eraikitze baimentzen eta/edo finkatzen da. Hori hala egingo da, Plan Orokor hau indarrean sartu aurretik eta finkatuta dagoen indarreko hiri-plangintzan horrela aurreikusten bada, edo sestrapean baimendutako eraikigarritasuna gauzatzeko beharrezkoa bada.

\* Eraikuntzaren altuera: ..... 11,00 m

c) Lursail-zatiketako baldintzak:

Gutxieneko lursail-azalera..... 900 m<sup>2</sup> (l)

B.-Erabiltzeko baldintza orokorrak:

Erabiltzeko baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ezarritako "A.40 Garapen txikiko bizitegi" tipologiako zona globalarenak dira.

1.1.2.-Hirigintza-esparruaren gainerakoa: (Azalera: 22.437 m<sup>2</sup>)

A.-Eraikuntzako baldintza orokorrak:

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

. Sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasun arauemailea eginak dauden eraikinen gaur egungo formaren emaitzazkoa da.

. Sestrapean, zona global osoan baimendutako gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna, bertan sestrapean baimendutako irabazizko izaerako eraikuntza guztiei lotzen zaie, orokorrean ezarritako irizpideekin eta, horri lotuta, Plan Orokor honetako "2.1. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) ezarritako irizpideekin bat etorrira.

b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak. Eraikuntzaren profila eta altuera:

\* Sestra gainean dauden eraikinen eraikuntzaren profila eta altuera finkatzen dira.

## **A.U. "AÑ.01" (Jarr.)**

- \* *Sestrapean: Orokorrean, sestrapean lau (4) solairu eraikitzeo baimena eman da. Gainera, aipatutakoa baino solairu-kopuru handiagoa eraikitzeo baimentzen eta/edo finkatzen da. Hori hala egingo da, Plan Orokor hau indarrean sartu aurretik eta finkatuta dagoen indarreko hiri-plangintzan horrela aurreikusten bada, edo sestrapean baimendutako eraikigarritasuna gauzatzeko beharrezkoa bada.*

### **B.-Erabiltzeko baldintza orokorrak:**

*Erabiltzeko baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ezarritako "A.40 Garapen txikiko bizitegi" tipologiako zona globalarenak dira.*

### **2.-Hirigintza-sailkapena.**

. *"AÑ.01.1 Atotxa Erreka Zatiko Plana" azpiesparruko lurak lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatzen dira.*

. *Esparruko gainerako lurak hiri-lurzoru gisa sailkatu dira.*

### **3.-Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.**

. *"AÑ.01.1 Atotxa Erreka Zatiko Plana" azpiesparruko antolamendu xehatuko erregimena bertan sustatutako Zatiko Planean ezartzen da 2004ko azaroaren 30eko ebazpen bidez behin betiko onartutako 1995eko Plan Orokorren esparruan. Hori guztia bertako Arau Partikularrean definitzen diren Plan Orokor honetan ezarritako irizpideetara egokitzea kaltetu gabe.*

. *Esparruaren gainerakoan antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehazten da.*

### **4.-Programatzeko eta gauzatzeko erregimen orokorra.**

*"AÑ.01.1 Atotxa Erreka Zatiko Plana" azpiesparrua gaur egun gauzatzeko fasean dago.*

### **5.-Tokiko sistemen sarearen baldintza orokor arautzaileak.**

. *Esparruaren eta herriko sare nagusiaren arteko bide-komunikazioa bi lotura osagarriren bitartez egingo da: gaur egungoa Añorga Txikin N-I errepidearekin, eta berria "Zuatzu" esparruarekin.*

. *Espazio libreen sistemarako gordeko da "AÑ.01.1 Atotxa Erreka Zatiko Plana" azpiesparruan antolatutako guztizko azaleraren %12 gutxienez.*



## A.U. "AÑ.01" (Jarr.)

### IV.-HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA

#### 1.-Kalifikazio xehatua.

##### a) "AÑ.01.1 Atotxa Erreka Zatiko Plana" azpiesparrua

"AÑ.01.1 Atotxa Erreka Zatiko Plana" azpiesparruko kalifikazio xehatuko erregimena da finkatuta eta indarrean dagoen Zatiko Planean ezarritakoa (aurreko II. epigrafean aipatu da), ondoren adieraziko ditugun salbuespenekin.

-Aurrenekoak Zatiko Plan horretan antolatutako "a.500 Eraikuntza isolatuko bizitegi" tipologiako lursailetan eragiten du. Lursail horiek "a.40 Garapen txikiko bizitegi" tipologiakoak izatera pasatuko dira. Dena den, horietako bakoitzean baimendutako eraikuntzaren forma eta erabilera arautzeko baldintzak (eraikigarritasuna, altuera eta solairu-kopurua, lursail-zatiketa, atzeraemanguneak, etxebizitza-kopurua, eta abar) kasu bakoitzean Zatiko Plan horrek ezarriko ditu.

-Bigarrenez, azpiesparruan baimendutako etxebizitza-kopuruari dagokionean, Plan Orokor honetan bere inguruan ezarritako irizpide orokorretan adierazitakoa beteko da (etxebizitzako batez besteko tamaina...).

-Eta azkenik, zorupeko eraikuntzak honako zehaztapen hauei erantzungo die:

. Antolamendu xehatuaren emaitzazko espazioetan eta lursail bakoitzean sestrapean baimendutako eraikigarritasun fisikoa, bertan baimendutako izaera horretako eraikuntzei lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrira.

. Antolamendu xehatuaren emaitzazko espazio eta lursail bakoitzean sestrapean baimendutako solairu-kopuru maximoa, kasu bakoitzean baimendutako eraikigarritasunari lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrira.

##### b) Hirigintza Esparruaren gainerakoa

. Hirigintza Esparruaren gainerakoan Arau Partikular hauetako "3. Zonifikazio Xehatua" planoan bildutakoak dira azpizona xehatu mugatuak.

. Emaitzazko lursail bakoitzean baimendutako sestra gaineko eraikuntzaren forma eta hirigintza-eraikigarritasuna –hau ere sestra gainean– arautzeko parametroak bat datoz bertan dauden eta finkatuak dauden eraikuntzen parametroekin.

. Antolamendu xehatuaren emaitzazko espazioetan eta lursail bakoitzean sestrapean baimendutako eraikigarritasun fisikoa, bertan baimendutako izaera

## **A.U. "AÑ.01" (Jarr.)**

*horretako eraikuntzei lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrira.*

. *Antolamendu xehatuaren emaitzazko espazio eta lursail bakoitzean sestrapean baimendutako solairu-kopuru maximoa, kasu bakoitzean baimendutako eraikigarritasunari lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrira.*

. *Azpizona xehatu horien erabilera-erregimena azpizona horietako bakoitzarentzako orokorrean ezarriko da Plan Orokor honetan ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua).*

### **2.-Hiri-lurzoruaren kategorizazioa.**

*"AÑ.01.1" azpiesparruan sartu ez diren Esparruko lurrek hiri-lurzoru finkatu izaera dute, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza duten lursailak hiri-lurzoru finkatu gabetzat jotzea kaltetu gabe.*

### **V.-HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK**

*Arlo honi dagokionean, Plan Orokor honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuetan ezarritakoa jarraituko da.*

